

Paroia egitearen arrazoiak:

- Bellota (karrozak gaur egun gordetzen diren lekua) aurten bukatzen zaigu, ez daukagu karrozak gordetzeko lekurik bermatuta datorren urterako. Hau ez da aurtengo gauza, bi edo hiru urte igaro dira berri hau izan genuenetik eta nahiz eta hainbat proposamen eman izan Udalari (salgai/alokatzen zeuden pabelloien anuntzioak bidali, egitura simple bat egitearen ideia eman...) ez da inongo aurrerakuntzarik izan. Hare gehiago, Bellotaren salmenta egin zen eta karrozak barruan ditugu erosleak oraindik pabelloian berrikuntzak egiteko asmorik ez duelako. Karrozak kalera atera bezain pronto, dena lapurtzen dute eta ez dute balioko...
- Aurtengo inauteriak aurrera ateratzea oso zaila izaten ari da.
 - Lehenengo, kamioiak ezingo zirela atera esan ziguten (gutxi gura bera 9 kamioi eta 9 remolke gea), eta ondoren, kamioiak ateratzekotan, rondilan ezingo zela karrozarik egon esan ziguten... Nabarmendu nahi genuke proposamen honek txantai kutsu handia izan zuela, kamioien eta rondillaren artean aukeratzera behartu nahi baitziguten.
 - Alkatearekin bilera bat egin eta gero, 2 karroza lortu genituen rondillan, baina udaltzain buruak 2 karroza baino gehiago ez ditu uzten. Txosten tekniko bat eskatu dugu arrazoi guztiak ondo jakiteko, baina ez degu ezer jaso.
 - Lengo urtean istripu bat egon zen, karroza batek kotxe bat jo zuelako, eta horren ondorioz, Udalaren segurtasun gorpuetatik karrozen jun etorria santa luziak egiteko proposamena egin zen, gure ustez, bere lana errazteko, baina gure aldetik ez dizkigu arazoak besterik eman.
- Udalaren segurtasun gorpuen jarrera ez zaigu batere gustatu. Beraiek beren buruaren bidez proposatutako ideia bat garatu beharra izan dugu, eta gero bileretara etortzeko esan zaionean, rondilla inguruan hitz egiteko, ezezkoa jaso degu.
 - Honi guztiari aurreko urteetan Udalaren segurtasun gorpuek izandako jarrera gehitu behar zaio. Aurreko urteetan beti izan dute karrozen jaitsiera eta igoeran laguntzeko betebeharra karreterak moztuz eta kotxeak igarotzea galaraziz karrozak segurtasunez mugitu ahal izateko. Horren ordeztuz, Bellotara etorri eta karrozak ateratzen hasi orduko alde egiten zuten, beste eginbehar guztiaz alde batera utziz eta karrozetako kideen esku utziz karrozen jaitsieraren eta trafikoaren koordinazioa.
- Nabarmenezkoa da Rondilla kalearen eta karrozak mugitzeko moduaren inguruko aldaketak ustezko segurtasun txosten tekniko batetan oinarritzen zirela, hainbatetan eskatu arren ikusi ez dugun txosten bat. Hortaz gain, txosten horren ustezko edukia aldatzen joan da bileraz bilera, udalak behin baina gehiagotan esan baitigu beren

argudioak txosten horta zutela oinarria, nahiz eta argudio horiek bilera batetik bestera aldatu. Hasiera batetan Rondilla kalean karrozak ez egotearen arrazoia bonbero eta anbulantziek igaro ahal izatea zen (nahiz eta San Francisco-n arazo berdina dagoen bai eta udaletxeak antolatutako kontzertuetan). Aurrerago, ikusita beraiek proposatutako ibilbidea (azken karroza Hogasunaren bulegoetan jartzen zuena) onartuko ez genuela ikusita estrategia aldatu zuten, kamioien eta Rondillaren artean erabakitzera behartuz. Azkenik, ikusita ez genuela halako erabakirik hartuko, gaur egun dugun ibilbidea osatu zen. Ibilbide honetan 2 karroza kokatuko dira Rondillan, argi geratuz lotesle zen segurtasun txostenik ez zegoela benetan eta negoziaketan abantaila moduan baliatzeko asmatu zuten kontua besterik ez zela.

- Berrikuntzen ondorioz, jun etorriak egiteko ez daukagu askatasunik, udalak eta santa luziak ezarritako ordutegira egokitu beharra daukagu eta. Igande eta asteartean ezin gara nahi degunean bueltatu, konboi moduko ezberdinetan mugitu behar garelako.
- Lehen aipatutako istripu horren ondorioz, seguru bat kontratatuzera behartuak izan gara, guk ordainduta eta bakarrik hirugarrengoko bati egin daitezkeen kalteak kubrituko lituzkena.

Karrozen elkartearen aldetik adierazi nahi dugu beti izan dugula Udalarekin elkarnanean aritzeko borondate osoa eta hainbatetan adierazi dugula. Jarrera proaktiboa izan dugu denbora guzti honetan, proposamenak eginez eta beraiek jarritako exigentziak betetzeko formula ezberdinak bilatuz (lehen azaldu bezala, astez-aste aldatzen ziren exigentziak). Hau horrela, ez dugu uste Udalaren aldetik jarrera bera jaso dugunik. Udalaren interesen aldekoak (urtez-urte iñauteriak “salbatzea”) ziren ideia eta eskakizunak garatzeko laguntza jaso dugun arren, gure gainerako interesak ahaztu direla uste dugu. Gure proposamena izan zen, esaterako, karrozetan argindarra jartzearen aldaketa, Proposamen hau egitean, berehala jarri ziren lanean Udalean, argindarraren gainean kontrola izateak karrozen ordutegiaren gaineko erabateko kontrola ematen zien eta. Aldiz, karrozen epe luzerako egonkortasuna lortzeko ahaleginak alde batera gelditu dira guztiz eta iruditzen zaigu helburu hau lortze aldera Udalak ez duela lanerako prestutasun eta grin bera erakutsi iñongo momentutan. Horren helburu nabarmenena pabelloiazen egoera da, baina badira beste batzuk. Esaterako, karrozen segurtasun arazoiei bukaera emateko karrozen berriztapen gradual bat egiteko proposamen bat luzatu zitzaizen, agian karrozen diru-laguntzetarako bideratutako diruaren zati bat erabiliz urtero (aurrekontuetan diru-kopuru handiago bat eskatu gabe). Ideia hau aspaldi ahaztu da ordea, Udalaren interesekin bat ez zetorrenez “ikusiko dugu”, “aztertuko dugu” eta halako erantzunak besterik ez baigenituen jasotzen.